



Gerraosteko industrialdia Oñatin

Aspalditik dogu industrialekua Goribar auzua. Aurrekaldian agiri dan Ibarako zelai ingurua ez hainbeste. Ezkerretan dagueen **Tximist** pila-fabrikia gerra ondoren fan zan paraje horretara Kale Zaharretik; erreka ondoko **Solaun eta Rubieren** plantxa-fabrikia be 1941 aldera jaso zan, hasieran **Dyna** izenarekin; baiña albuana dakon pabeilloia gerra aurtxokua da. Zumarragako **Buscatarrak** zuma-lanetarako egindakua, fotografixa hau atara zan sasoiari plantxa-fabrikiarena baldin bazan be; **Barrenzelaiñeko** zerria dago hurrengo: gerrara orduko eraikitta eguen hau be, eta puntuan Kanpiazelai aldera aldatu dan arte, hortxe jardun dau 60 bat urtian; dana dala, zelaixan agerketan diran ohol-pillak ezkerreago dagueen eta argazkixan ikusten eztan **Galdoseneko** zerrakuak dira. Gero, errekaraiño, Ibarako ortu-saillak datoz, orain **Energía Portátil** (garai bateko **Tximist-Cegasa**) enpreziak bete dittuanak.

Errekiaz bestaldetik eztago artian **Ulmaren** arrastorik; **Txintxurretak** garajia bakarrik dako; Fundiziña (**Mugarza, Ugarte eta Konp.**), ostera, gehixena jasota dago: arboleda ingurukua gerra aurrian, eta erreka aldekoa ondoren. **Garaiñeko** lantegixa, bere tximinixa luze eta guzti, askoz lehenagokua dogu: gutxienez XVI. gizaldixa ezkerreko olija zan lekuan pospolo-fabrikia ipiñi eben Aretxabaletatik etorritako Kornelio Garaik 1866xan; 1903tik 1921ra itxitta egon zan; harrezkero burdingintzaiari ekin otzan. Argazki hau atara zanian, itxurako lantegixa izan arren, hurrengo hamarkadetan asko zabaldu zan Garaitarren fabrikia; oraintxe be pabeilloi barrixak egitten diahardue Goribar baserrixa zanaren lurretan. Eskuman **Loyola** txokolaterixiaren lehenengo jaso zan zatixa ikusi geinke; orain **Oinakarrek** dabillena, hain zuzen. Atzerago **Arrazolatarrak** XIX. mendian jarritako kurtedirixia, asko ezjala erre zana. Garaiñetik Zubillagaraiño etzan orduan beste industriarik.

Emun dittugun datuak eta Kale Zaharrian dagozen etxiak kontuan izanda, fotografixia 1952-1953 urtien bueltakua izan leikiela uste dogu.

J. E.

Argazkixa Xabier Zelaiaik itxi dosku.

Aranburu Altzariak

Kale Zaharra, 21 Tel. 78 11 60



San Lorenzo, 13
Lazarraga, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06 OÑATI

Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko lehoi
eta pertsianak
P.V.C.
Poliuretano
CLIMALIT